

## **BASABELTZ**

(Lau gertaldiko ikusgarria)

**Jokalariak :** *Kose* : Basabeltzeko nausia.

*Ana* : Kosereren emaztea.

*Erramun* : Semea.

*Ganix* : Erramunen anaia.

*Kattalin* : Zapparretako andrea.

*Bettiri* : Kattalinen senarra.

*Mayi* : Kattalinen alaba.

*Faturra*

*Edmon*

*Bertze gizon batzu*

*Aleman poliza*

*Bi aleman*

### LEHEN GERTALDIA

**Joka-lekua :** Laborari etxe batetako sukaldea.

GANIX . - (*Ongi bezt, dolu kapa handi bat gainetik, boneta buruan, penatua zintzoki mintzo da*) Etxe hunek Basabeltza du izena... Hau da Basabeltzeko sukaldea... Ni naiz hemengo bi semetarik zaharrena, hemendik kanpo ezkondua. Etxe huntan, ene familian gertatuak izigarriak dira... Hemen pasatuak nahi dauzkizuet agertu, holakorik gehiago ez dadien gure Euskal-Herrian gerta... Aleman meneko ginelarik, hemen bizi ziren ene aita. Huna ene aita. (*Kose sartzen da, espalakoin bat gantzolatzen duela*) Ene ama. (*Ana sartzen da baratzeakariak eskuetan*) Eta ene anaia Erramun. (*Hau ere sartzen errebolbera garbitzen ari dela*) Ni kanporat ezkondua nintzen. Hemen zer gertatu zen, orai jakinen duzue. (*Ganix ateratzen da. Apur batez, kanpotik entzuten da urrun Aleman soldadoen kantu bat, heien urrats arrabotsarekin*)

ERRAMUN . - (*Erridau artetik, kanporat behatu ondoan*) Kanta-azue, kanta, zuen mutur zuriekin... Ixilduko zarete ba oraino, Euskal-Herria hustu beharko baituzue lastersko.

KOSE . - (*Kexu airean*) Hiru urte badituk solas horiek entzuten ditudala... Niagok hire ametsa ez ote den ametsetako lukainka.

ERRAMUN . - Zonbait egun barne, ikusiko dituzu perdailuz bezti horien tarrapatak, ihiziek zakurrak bezala, angles amerikanoak gibeletik izanen dituztelarik.

KOSE . - (*Minberaki*) Hire angles amerikanoekin !... Hor habila gauak eta egunak larrekiz larreki, heien zerbitzuko... Gure etxea anartean, hemen ari duk errekaratzen... Laguntzarik ez, lur lanetako, alimalen tratatzeko... Denak, aita eta ama zaharren gain... Eta semea adinik hoberenean, hor dabila, bide-mendika, ez zakiat nungo nausien mutil.

ERRAMUN . - Aita badakizu arras ontsa, soldado altxatua naizela angles amerikanoen zerbitzuko... Alemanak hemendik behar ditugula kasatu... Horien kasatzeko tokian berean, indarren muntatzen ari garela...

KOSE . - Zuek ?... Zuek zer eginen duzue Alemanen kontra ?... Tutta umeak zuek ! Zuek ez bezalako gizonik beharko duk horien hemendik haizatzeko !...

ERRAMUN . - Ho, badakit aita, alemanak gizon gaitzak daukazula !... Zure goxadurak heientzat dituzula ostatuan, oraino berrikitan, heien alde ibili dituzun espantuak, ez dira gogorren beharrietarat eroriak...

KOSE . - Eta zer gero ?... Zer kalte ekarri ditek alemanek gure herriari ?... Horien orde angles amerikanoak izan balire hemen, uste duka, hobeak litazkela ?...

ERRAMUN . - Bon, badakit horien krimak, ohointzak pitsik ez direla zuretzat.

KOSE . - Horien menean fidantzia gehiago diat, hire inguruan ikusten ditudan mandilxka batzuen menekoen baitan baino.

ERRAMUN . - (*Minberatua*) Gu mandilxkak !... Bainan hor baitira, Edmon, ostaleraren seme hori eta bertze batzu, alemanekin josiak, herri guzietako harat-hunatetan salatari eta denen saltzeko prest... Horra zure gizon eta adixkideak !...

KOSE . - (*Koleratua*) Edmon ! Edmon ! Eta gaineratekoak utziko dituk bere gisa, ene adixkide direla aipatu gabe... Badakik arras ontsa, duela zonbait egun, Edmon etorri dela hunarat aleman poliza batekin... Hire ondotik ibilki zituan, baitzakiten etxean gordetzen haizela. Saldu huta nik orduan Edmoni ? He, saldu huta ?

ANA . - Otoi egon ixilik, zuen politika zikinarekin !

KOSE . - Badakik arras ontsa, nola larrua bipilik ibili nintzen hi salbatzeko. Hire gordegia, auzoan, Zapparretako belar metaren azpian, hihaurek galdeturik, ukana duk !

ERRAMUN . - Ba, beharrik Zapparretakoek ez dituzte zure ideia berak... Sekulan ez baininduteke gordeko gau eta egun, gordetzen nauten bezala, beren biziaren irriskuan.

KOSE . - Zapparretako alaba gogokoa dukala eta , Zapparretakoak hiretzat denak saindu dituk ! Eta, uste duka nik ez dudala deus irriskatzen hiregatik ?...

Edmonek eta aleman polizak bazakiteian etxerat joan-jinka ibiltzen hintzala...

Errotik ukatu zioteiat, ez dukala hemen zangorik sartzten... Eta, mehatxuka joanak dituk, sekulan hemen onartzen bahaut, etxea eta gu denak erretzen gaituztela !... Eta gero, ariko haiz kondaka ni Alemanen aldekoa naizela !...

ERRAMUN . - Ba, eta zuk halere, holako gizonak sustengatzen !

KOSE . - (*Errotik koleratua*) Errak !... Bakea emanen duk holako solasekin. Oroit hadi, hemen Basabeltzean, nausi ni naukala gero... Eta, ez bahaiz kontent, aski duk nahi dukan tokietarat alhatzea... Hum !... (*Ateratzen da*)

ANA . - He... Aski, aski ! Ez dakit zertako bat eta bertzea hoin bortizki ari zareten, jende arrotz batzuen lauzkatzen !

ERRAMUN . - Zuk, ama, ez duzu pitsik konprenitzen politikan !...

ANA . - (*Hasperen batean*) Ez pitsik konprenitzen !... Edo sobera !... Nik konprenitzen dudana duk, gure familia nahasia dela, eta... zertako ?... Jende arrotz batzu elgarren artean, samurtu direlaketz. Utz-atzue arrotzak gerlan ari daiten gure buruen gainez-gain... Eta gu, gauden bakean eta goxoki, gure artean.

ERRAMUN . - Errex da erraitea... Arrotzak beren tokietan bizi balire ba, egonen gintazke gu goxoki eta bakean !... Bainan, arrotzak gure artean baitira haatik !...

ANA . - Ba, sortzez euskaldunak, arrotzen mutil bilakatuak gaituk ezin bertzez... Euskal lurrak, denak bat behar litezkenak, muga batzuz bi partetan ezarri ditiztek... Guri duk muga horien sekulan ez onartzea... Arrotzek, gu baino indartsuago direlaketz, gure gorputz ontasunetan bortxatzen ahal gaitiztek ; bainan guhaurek ez badugu nahi, nehor ez zukek gure gogo-bihotzez jabe bilaka... Lurrez ez dezakeguna, bederen gogoz eta bihotzez euskaldun guziek, eta lehenik gure familian, bat egin dezagun ! Horra hire amaren politika ! (*Hemen egoiten dira biak apur bat ixilik... Erramunek leihotik, zakur erauntsieri, behatzen du... Eta, eztiki mintzo amari*)

ERRAMUN . - Ama !

ANA . - (*Eztiki hau ere*) Zer duk ?

ERRAMUN . - Mayi Zapparretakoa heldu da hunarat.

ANA . - Datorla !

ERRAMUN . - (*Apur bat ixilik egonik, herabe bezala mintzatzeko*) Ama, Mayi eta ni utziko gaituzuia, ixtant bat bakarrik ?

ANA . - Bakarrik ? Ba mutikoa, ba !

ERRAMUN . - Ba... Egun emaitetkoa daut errepusta... Ba edo ez dion... Ba... Esposatzeko... Ez orai ez... Gerla bururatu eta...

ANA . - Uste nian, hortaz jadanik, hitzartuak zinetela ?...

ERRAMUN . - Egun jakinen dut azken hitza... (*Apur bat ixilik dagotzi*) ...Ama, zuk bazinakiena, Mayi, serora sartzekotan zela ?

ANA . - Mayi serora ? Ez nian behin ere holakorik entzunik.

ERRAMUN . - Hala daut erraiten... Bere amari salatua omen dio zerbait, bainan aitari oraino pitsik ez !

ANA . - To !... Hori berririk diagu !... Mayi serora ? Ale !...

ERRAMUN . - Ama ! Ez gero nehor pitsik aipa !... Agian komenturat sartze hori burutik utziko du.

MAYI . - (*Kanpotik*) Hela !... (*Zakur erauntsiak*)

ANA . - Aintzina, aintzina !... Zu zirea, Mayi ?

MAYI . - Ba, ba... Zer ari zinezten ikusterat jina !

ANA . - Ori !... Enekin segurik solasean aritzeko, memento txarrean heldu zira... Oraixet baratzerat abiatua nintzen... Kozina ura suan eta lur sagarrak lurrean ditut oraino.

MAYI . - Zoazi, zoazi deskantsuan... Ez zaitela lanetan, enegatik gibela.

ANA . - Zer nahi duzu !... Egungoan segurik hola izanen da... Uzten zautzet biak ixtant bat. (*Ateratzen da... Erramun eta Mayi, apur bat ixilik daude, ahalge balire bezala*)

ERRAMUN . - (*Eztiki*) Eta ?... Zer erreputa emaiten dautazu ?

MAYI . - (*Lurrari behatuz... gogoia nahasia*) Pena eginen dautzut. (*Mahain hegian jartzen da*)

ERRAMUN . - (*Pena izigarri batekin*) Ezetza duzuia ?

MAYI . - (*Erdi nigarrez*) Ho... Erramun !

ERRAMUN . - (*Trixtatua ixtant bat ixilik dago. Hurbiltzen zaio, erdi nigarrez*) Ho, ez zaitela komentuan sar, Mayi !...

MAYI . - (*Fermukiago*) Hainitz estimatzen zaitut... Uste dut urus izanen nintzakela zurekin... Bainan, ezkontzaz bertze xederik dut.

ERRAMUN . - Oraino zombait egun har-zkitzu, otoi, zure gogoeten egiteko !...

Nik, arras zurekin naukan ene geroa !

MAYI . - Nik, ene gogoia, aspaldian komentukotz daukat...

ERRAMUN . - Mayi... (*Hurbiltzen zaio soberasko, bainan Mayik, xutituz ihes egiten dio*) Zu gabe, ene bizia pitsik ez da.

MAYI . - Ez da neskaxa eskasik, esposatu nahi dutenik. Izanen duzu hautua.

ERRAMUN . - Zutaz kanpo, ez da enetzat hauturik. (*Ixilik dago ixtant bat*)

Beraz, arras deliberatua zira ?...

MAYI . - Ba... Zombait denbora huntan ere... Haatik, gure artean egon dadiela sekretu hori.

ERRAMUN . - Eta, zerk eman dautzu ideia hori ? Ez dautzut bederen zerbailetan huts egin ?

MAYI . - Ez, ez... Deusetan ere... Zure galdea ukan baino aspaldi lehenagotik, deliberatua nintzen. Harat, ene adixkide serora bat joanez geroz. Aurten, behin ere baino gehiago, udazkenean, eñadak multzoka urruntzen ikusi ditudalarik, senditu dut ene baitan suzko desira bat bezala, heiekilan hegaldatzeko.

ERRAMUN . - Hegaldatzeko ? Norat ?

MAYI . - Afrikarat serora joaiteko xedea dut.

ERRAMUN . - (*Harritua*) Afrikarat ? Afrikarat ? (*Ixiltzen dira... Zakurra erauntsiaka... Norbaitek kanpoan, pon-pon-pon-pon diola, kantu baten airea emaiten du*)

FATURRA . - Eheup !... Idek borta, etxe huntako andere xarmanta, hemen baita zure galanta !... (*Sartzen da, eta bi gazteak bakarrik direla ohartuz*) Ohop !...

Ai, ai, ai, norat jin naiz hunarat ?... Ez da estonatzeko kanpotik entzuten bainituen potta arrabots batzu !... Ba... Mayiren begi perla horiek enganatu ote haute hi ere ?... Bihotza pilpil ?... Ba, adinean zarete !... Ixtantean ezkontza, eta gero, bataioak ! Zer nahi duzue... Gu ere, hortan pasatuak gaituk !

ERRAMUN . - Ha !... Zu atzokoa egun ere !

FATURRA . - Hola duk gure bizia... Eta engoitik hola izanen !... Ekarrak to, pitar xorta bat... Gorritik gero ! (*Zerbitzatzen dio... Pipa bat itzulikatzen duela*) Gerla denbora huntan, plaza etxe horietan, arnorik ere ez diagu. Eta, zuen etxea, nunbait izanik ere, gogotik jinen nuk hunarat, baitakit pitarra baduzuela edateko. Ez ninduan to, gerla aintzinean, hoin gogotik hunaraino... (*Edaten du*) Ha, zer gauza gure Jainkoak pentsatu zuen, mama gorri hau ! Hauxe ba, zoin ixil zagozten... Pena diat zuen artean sarturik, bainan ez nezakeian bertzerik egin. Hago !... Nun dut zuen letra hura ?... Berdin, gero ere, izanen duzue

elgarrekin egoiteko astia !... Urteak luze dituk... To, huna zuen letra... Ez duk deus handirik... Erreklama zerbait.

MAYI . - Eta gure etxekotz ez dea ?...

FATURRA . - Ez, gaixo aingerua, ez da... Erramun soldado zelarik, orduan ba bazinituen... (*Edaten du*) Zu moko fin... (*Su ilete batez pipa pizten du*) Letrak heldu zirelarik, beti adixkide serora batek izkiriartzen zautzula erraiten baitzinautan... Uste zinuen beharbada enganatzen ninduzula... Pentsatzen nuen ba, pixka bat gorabehera, zoin komentuko serorak izkiriartzen zautzun !

MAYI . - Alta, egiaz mintzo nintzen !

FATURRA . - Komentutik zinituen, bainan soldado komentutik.

MAYI . - Gizonak, denak berdinak zarete !... Emaztek erranak ez dituzue sinetsi nahi...

FATURRA . - Emazteak sinetsi ?... Osorik sekulan... Erdizka ere, ez beti...

MAYI . - Uzten zautzet, etxerat itzuli behar baitut.

FATURRA . - Errak ! Abisatuko nauzue gero espos meza noiz duzuen ! Bizi balinbanaiz, huraxe ez diat huts egingo.

MAYI . - Bon ! Agur ! Bertze aldi bat artio !

FATURRA . - Ontsa da... Bertze aldi bat artio !... Egia gero !... Greba egin behar badiat ere, ez nuk egonen zuen espos mezarat jin gabe.

KOSE . - (*Sartzen da, kopeta ilun*) Hor zirea, faturra ?

FATURRA . - Ba, hemen naiz... Nik, polliki halere, bi urtzo tortoil harrapatu ditudala ohantzean !

KOSE . - Zer tortoil ?

FATURRA . - Auzokoa eta zuen hau ! Oraixet erraiten nion, eta berriz erraiten diot : Bizi banauk, bizi banauk, zuen espos meza ez dudala huts egingo !...

Agian, ez ditugu orduan aleman tzar horiek herrian izanen.

KOXE . - Eta, zertan zarete alemanekin, plaza alde horietan ?

FATURRA . - Hum !... Ez zakiat, ez ote diren buruz behera abiatuak !... Berri tzarrak ditiztek gerla tokietarik... Bertzalde, atzo eta egun biziki kexu dituk... Hemen berean badituztela etsaiak, armaturik gordeak. Zoko guzien miatzen ari dituk... Edmon, ostaler seme zikin hori ditek, tokien erakusle.

ERRAMUN . - Ha Edmon !... Gure etsairik handienak, ez dituk ez alemanak...

Gure artean, gure artean dituk. (*Hemen lotzen dira bortizki kalapitan*)

KOSE . - (*Minberaki*) Ez dik balio bertzeen txarkeriez arreguratzea... Zuhaurek zarete tzarrenak.

ERRAMUN . - Guk, zer tzarkeria ibiltzen dugu ?

KOSE . - Zer tzarkeria ?... Utz alemanak bere gisa... Ez mia horiek hemen nagusi sartu direla eta !... Miatzen badituzue, ez estona errefera ukaiten baduzue !...

ERRAMUN . - (*Faturrari*) Horra gure etxean berean zertaratuak garen... alemanak hemendik joaiten, izanen du gure herriak garbaldi baten beharra, gure etxetik haste.

KOSE . - Gure etxetik haste ? Zer errango duk ? Edo, ni alemantzat hartzen nauka ?... Ez haiz ahalge ere hola mintzatzeko !... Hire aita nauk gero !... Eta, oroit hadi nork gorderik eta noren ogitik janez bizi haizen !...

ERRAMUN . - Ba... Kontseilatzen dautzut zure ahal guziez gu laguntzea...

Ondoko egunetan, alemanak hemendik kasatzean, izanen baituzu gure beharra zure buruaren salbatzeko !

KOSE . - Ondoko eguna, bego ondokotz... Egungo egunak dituk lehen... Eta, ez nauk, zuek bezalako perttoli batzuen beldurrez, ixilik egonen den hetarik... Eta, jakin-azue, bazterren nahasten lotzen bazarete hemen, zuen etsai lehena, ni izanen naizela, ni ba ni !...

ERRAMUN . - *(Faturrari)* Horra gure aita !... Edmon, herritarren saltzale !... Hau ere, harekin uztartzeko on da !

KOSE . - *(Izigarriki kexu)* Bakea emanen duk gero !... Badakik arras ontsa ez dudala egundaino nehor saldu ! Eta hola, ni zangoz aintzin igortzeko xedetan bazarete, hartuko ditiat gero, nik ere, ene alderdiak, tenore deno... Ikusiko dugu nork hilerriak gizenduko dituen lehenik : Zuek edo nik !...

ERRAMUN . - Ez dakit nork gutarik bertzea ehortziko duen, bainan jakin-azu, hola lotzen bazira, ez zaitudala kontsideratuko, ihiztariak basa lapin bat egiten duen baino gehiago.

KOSE . - Nahi dukana eginen duk, bainan jakin-zak hik ere... *(Zakurra erauntsiaka ari baita, faturrak leihotik behatzen du)*

FATURRA . - *(Betbetan asaldatur)* Xxt !... Xxt !... Aleman multzo bat... Aleman multzo bat heldu, Edmonekin !...

ERRAMUN . - Alemanak !... *(Errebolbera harturik, jauzi batez, ganbarako atetik doa ihesi)*

KOSE . - Karakoila zikina !... To... Har dezatela preso !... Ez dik izanen merezi duena bertzerik... Han bederen pixka bat heziko duk.

FATURRA . - Hunarat heldu dira... Hobe dute ez mugitzea... Etxea inguratzen dute soldadoz... Kasu etxe miazeari ! Edmon heldu da poliza nausiarekin. Jar gaiten... *(Braukoan atea idekitzen da, eta sartzen da Edmon, aleman poliza batekin... Hunek zigor bat dauka eskuan eta zakur bat estekatik... Sartzen dira ere bi aleman poliza gizon)*

POLIZA NAUSIA . - Alles auf !

EDMON . - Xutitzeko ! *(Bi gizonak xutitzen dira)*

POLIZA . - Alles durchsuchen sie : Zimmer, Henbeden, Scheppen, alles !...

EDMON . - Etxe guzia miazteko manatzen diote. *(Bi poliza gizonak jalitzen dira ganberako atetik... Poliza nausiak, burua briu-brau ibiliz, mubleri ostiko eta azote kolpe batzu emanez, sukaldea miazten du)*

POLIZA . - Wo ist der Sohn !... Ich wil der Sohn.

EDMON . - Erramun ikusi nahi duela dio...

FATURRA . - Ez duk hemen... Oxtiantxet hemendik jalia duk... Lekuko hor nauk...

POLIZA . - Was ? *(Edmonek ahapalean espliketzen dio... Faturrari)* Was machst du hier ?

EDMON . - Ean, zer ari ziren hemen ?

FATURRA . - To !... Letra batekin etorria ! *(Edmonek Alemanari espliketzen dio)*

POLIZA . - *(Faturrari)* Gut... Haus.

EDMON . - Joaiteko zure bidean.

FATURRA . - Ontsa duk... *(Ateratzen da)*

POLIZA . - Fragen sie... Wo ist der Sohn ?

EDMON . - *(Koseri)* Semea norat joan den galdatzen dautzu.

KOSE . - Nik ez zakiat. *(Espaldak altxatzen dazko Alemanari)*

POLIZA . - *(Orroaz)* Er will nicht sprechen ? Die arme auf !

EDMON . - Besoak altxatzeko... Mintzaraziko zaituela ba...

POLIZA . - Ha... Du willst nicht sprechen !... *(Puñala bisaiari hurbiltzen dio gaitzeko mehatxuan)*

EDMON . - *(Koseri)* Zaude !... Tzarrerat joan gabe, entseatuko naiz ororen arranjatzerat ! *(Berriz Edmon eta Alemana solastatzen dira apalki)* Horra !... Erraiten dakot guretarik zarela... Besoak beheiti-zkitzu... Ez duzue deus irriskurik, ez zuk eta ez Erramunek... Armen ondotik dabilta bakarrik... Etxeak miatzen dituzte arma gorderik badenetz ikusteko, eta gizonak nun diren jakiteko. *(Etxea miaturik, bi poliziak agertzen dira)*

POLIZA . - *(Bi laguneri)* Keine Waffe ?...

BIEK . - *(Salutatuz)* Keine !

EDMON . - *(Koseri)* Bon... Ez duzu beldurtzerik... Ez baitute armarik harrapatu... Hobe diozute erraitea garbiki nun den semea. Gizonak etxetan direla segurtatuz geroz, bakea emaiten dute. Erramun zer da ?... Segur auzoan ?... *(Kose zuritua... begiak nonbait galduak dago)* Auzoan dea ? *(Kosek buruz "ba" errepostu emaiten du)*

EDMON . - Erradazu, xuxen non den... Ixil ixila auzokoeri salatuko diotet agertaraz dezaten, ez daiten hauk ohart gordetzerat joana zela... Zer da, belarrean gordea bederen ? *(Kosek buruz ba erraiten dio)* Selauruan ? *(Batere ez erreputarik)* Edo kanpoko metaren azpian ?... Emazu ba erreputa ?... *(Buruz, ba erraten dio)* Hobe duzu hola mintzatu zarenez... Bertzenaz zuhaur garbi eta etxea erretzea irriskatzen zinuen. *(Edmon, apalki Aleman poliza nausiarri mintzatzen zaio)*

POLIZA . - *(Koseri lausengatuz)* Du... Vater... Gut... *(Bortizki)* Der Sehn, panpan... Fusilieren... Amerikan... Spion... Spion !...

EDMON . - *(Koseri)* Zu gizona zarela dio ! Bainan semea... *(duda-mudatu ondoan)* bertzerik dela !

POLIZA . - Heraus !... *(Oro jalitzen dira salbu Kose. Kose bakarrik... Erortzen bezala da kadera baten gainerat... Mahain kantoinean jarria, izerdi hotz bat xukatzen duela, harritua egin duenaz, zintzurra karrakatuz, doidoia begiratzen ditu bere nigarrak)*

ANA . - *(Sartzen da asaldaturia)* Zer gertatu da ? Zer behar zuten aleman horiek hemendik. Ikusi ditudalarik heldu, berro zokoan gorde naiz. Ez dute Erramun harrapatu ? *(Kosek, ixil eta ilun, buruz "ez" egiten dio)* Ikusi dut Erramun, ganberako leihotik eskapatzen... Eta, zer egin dute hemen ? Zuri, zer erran dautzute ?

KOSE . - *(Xutiturik, supazterrerat doa jartzerat)* Pitsik, pitsik. *(Han dago, burua esku batez atxikitzen duela, zintzurra karrakatuz)*

ANA . - *(Koseri apur bat beha egonik, arras asaldaturia)* Zer duzu zuk ? Zuk baduzu zerbait ?... Zerbait erran dautzute ? *(Koxe ixilik dago, beti zintzurra karrakatuz)*

ANA . - Zer egin diozute bederen ?... Erramunen gordetegia salatu ? *(Kose beti ixilik)* Zuk Erramun salatu duzu ? *(Inarrosten du Kose. Kose nigarrez lotzen da)* Oi gure Erramun ! Oi familiaren trixtea !... Politika madarikatua. Nazione arrotz batzuk beren artean gerla piztu dute... Beren mugak, gure lurretan ezarri dituzte... Eta, ez dituzte bakarrik gure lurak partikatu, bainan ba gure bihotzak ere... Heien arteko kalapitan, berak baino barnago sartuak... Haurridea haurridearen kontra... Aita semearen kontra... Utz arrotzak beren nahaskerietan, betan guhaur barne sartu gabe. Gure lurretan arrotzek ezarri

mugak pits ez litezke, ez baginitu guhaurek muga horiek azkartzen, sumintzen... Eta zertako ?... Ba, zertako ?... Gaixo gu ! (*Nigarrez lotzen da*)

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Euskaldun etxe aintzin bat... Bi hiru eskaleren buruan, sukaldeko atea... Sukaldeko leihoa, tranpa bat. Ate aintzinean, egur pikadera, eta, nahi bada, zakurtegia.

*Bettiri, boneta harro, ari da, akitua, egur pikatzen aizkorarekin. Zango batean badu, trapu zuriz lotura bat... Han ari da, nardatua, buruari hatz, izerdia xuka... Oharturik zangoko lotura barraiatzen ari zaiola, jartzen da eskalaretan, eta trapua biltzen duela.*

BETTIRI . - (*Oihuz*) Mayi !... O Mayi !... (*Orroaz*) O Mayi !...

KATTALIN . - (*Sukaldeko leihotik fierra*) Zer duzu gizona ? Ala... ulitxetan zare ?

BETTIRI . - Ha... Nunbaitik ere... Alaba deitu eta emaztea agertu... Gure neska horri errozu, min hunen lotzerat etortzeko !... Mila ingurutan trapu tzar batzu ezarri ditu hor, eta, denek ere, ez dute oren baten iraupenik... Mila fantexia ba, hor, seroretan ikasten dutela, min tratatzen... Eta, min bat tratatzeko eman-eta, horra kitantza !

KATTALIN . - (*Aterat agertuz*) Zer duzu gizona, holako erasietan ?

BETTIRI . - Ori ! Badut zuretzat ere lana... Egur hauk garreia-zkitzu sukalderat... Nahi nuke jakin gure neska hura zer ari den.

KATTALIN . - Gizona, zaude ixtant bat... Baratzerraino joana da. (*Oihuz*) Mayi ! O Mayi !

MAYI . - (*Agertzen da etxe sahetsetik*) Zer duzu holako oihutan, ama !

KATTALIN . - Aita dun, neska, ez hauea nehon ikusten, penatua !... Badakin nola diren gizonak !... Zerbait lotu orduko, etxeko emazteki guziak ondotik behar dituzten.

BETTIRI . - Bon... Ontsa da... Elizan apezza predikuan eta gure etxean apeztsa... Erran Mayi... Ez zakinat zer demontre ikasi dunan serora horietan, baina hire trapu tzar eta sendagailu guziengatik, ene aitzineko mina, gero eta gaizkiago zioan... Neska, ikas-an min baten lotzen, atxikiko duen moldean... Mila aldiz jada errana daunat... Lot, kotzino, lot mina !...

MAYI . - (*Lotura eginez irriño batekin*) Aita... Egin ahalak egiten ditut... Baina, zuk duzu zango bortitza !

BETTIRI . - Bortitza edo ez bortitza, lot zan hobeki min hori... Eta lot zan, laster sendatuko den gisan... Senditzen dinat arras ontsa, zango hori, zalutzeko orde, hiltzen ari zautala.

KATTALIN . - Biper gorriarekin egin-zon lotura... Zalutuko zaion ba...

BETTIRI . - Biper gorria ba !... Biper gorritzatzeko, aski luke ene minak zure mihiaren milika bat.



KATTALIN . - Edari gutixago edaten bazinu, ez litazke, zure minak hola gaizkonduko.

MAYI . - Bon... Orai has zaizte, berriz ere, kalapitan !...

KATTALIN . - Zuk ere, ez dakit, nola duzun sudur hori hoin gorri.

MAYI . - (*Aitari zango azpia kilikatzen dio*) Kilik, kilik...

BETTIRI . - (*Irriz*) Hihhi !... Neska ! Zertako ari haiz hola kilikan ?

MAYI . - Aski duzu ixilik egoitea !

KATTALIN . - Ba... Igande arratsetan ez din ez minik... Orduan nork atxik gu ?

BETTIRI . - Ba... Mayi emazten falta omen da, senarrak ostatueta ibiltzen badira. (*Mayik kilikatzen dio zango azpia*) Hihhi (*Irriz*) ...Neska ez nezanala kilika !

MAYI . - (*Irriz*) Aski duzu ixilik egoitea.

KATTALIN . - Beha zan horri ! Ez dugula ongi tratatzen etxean ! Zer kopeta !

MAYI . - Ama, ixilik zu ere !

BETTIRI . - Ba, eni pegarra, eta zuentzat ixilka kopa ttipiak. (*Mayik kilikatzen du. Bettiri irriz zalapartaka*)

MAYI . - Bon, egon ixilik !

BETTIRI . - Hi bezalako neska nausiturik, behin ere ez dinat ikusi... Hi hartuko hauen senarra, urrikari dinat, gizagaizoa !

MAYI . - Egonen naiz beraz ezkondu gabe, senar malurus bat gutiago izan dadien munduan !

BETTIRI . - Hi, ezkondu gabe egon ! Galtzadunik munduan ez balitz, orduan ba nahitaez, egonen hintazke ezkondu gabe... Bainan, galtzadun bat bakarria munduan deno, ez huke ezkontzea etsituko.

MAYI . - Ikusiko dugu hori. Denak harrituko baititut. Serora sartuko bainaiz.

BETTIRI . - Hi serora ba ! Hi serora ! No ! Ene baimena badun segidan... Habil, habil... Pentsatu dun behin bederen !...

MAYI . - Kasu ez zaitudan hitzean har !

BETTIRI . - Basabeltzeko bigarren horren "oremus"-ak sobera kartsuki segitzen ditun no, izpiritua komentuan izaiteko.

MAYI . - Uste duzuia badela zerbait Erramun eta ene artean ?

BETTIRI . - Ez zakinat... Hori, zuen sekretua dun ! Haatik goberna zaizte ontsa... Ez dinat gero, etxe huntan, larre xitorik hazi nahi !

MAYI . - Uste duzuia ontsa eman nezakela Erramunekin ?

BETTIRI . - Ba... Salbu ilargi kanbiotan eta galernetan... Orduan kasu elektrikari... Hura bolbora eta hi sua... Elgar piztu-eta, ez jakin noraino garrak hedatuko diren.

MAYI . - Jes ! Hola jite jauzikorra ote du ba Erramunek ?

BETTIRI . - Basabeltzekoak hola ditun... Onez, onean, gizonak... Bainan, tzarrean sartuz geroz, debru tzarrak ! Eta Erramun hori, dena bere aita dun.

MAYI . - Bon... Kuraia emaiten dautazu zuk !

BETTIRI . - To, to, to !... Guk hura aipagailu eta hura heldu... Horra nun heldu den Erramun. (*Hau agertzen da, lasterka, kara kexatu batekin*)

ERRAMUN . - Fite, fite !... Nun behar dudan gorde, erran dezadazuet... Alemanak ondotik ditut... Gure etxean sartuak dira !

BETTIRI . - Hee !... Alemanak !... Debru semeak !...

MAYI . - Sar zaite belar meta azpian.

ERRAMUN . - Ez, beldur naiz hor atzemanen nautela... Zakurrekin baitira !

BETTIRI . - Zakurrekin !... Hago ixtant bat... Emanen deat ba nik, zakurren sudurrek usmatuko ez duten gordetegia... Ikusten duk tranpa hori... Horren gibelean, aurkituko duk bi murruek arteka bat... To-tzik zurubiak. (*Ekartzen ditu*) Habil goiti... Atxikiko dauzkiat... Bahiza ? Ikusten duka gorde tokia ?

ERRAMUN . - Ba...

BETTIRI . - Ontsa duk... Orai ken ditzagun bixtatik zurubiak. Kattalin, ekazu hunarat grezila zorta on bat... Ale, laster, laster !...

KATTALIN . - Zertako grezila ?

BETTIRI . - Ha ! Denak aintzinetik jakin behar !... Ekazu grezila, eta ikusiko dugu !

MAYI . - Ori, grezila, ori, aita !

BETTIRI . - (*Grezilaz bustitzen ditu bere inguruak*) To, huntaz benedikatu tokietarat, jin ditela aleman zakur guziak... Hire usainaz egiteko orde, grezilaz sudur ziloa usainduko ditek... Ontsa hiza to !

ERRAMUN . - Ba, arras ontsa !

BETTIRI . - Bon... Alemanak, hunarat jiten badira ere, guk hobe diagu bakotxak gure eskualdetarat aldaratzea !

ERRAMUN . - Zoazte otoi bat ene anaiaren abisatzerat ! Beldur naiz zerbait gerta dadien egun nere etxean.

BETTIRI . - Ontsa duk !... Nihaur joanen nuk segidan, landaz landa... Emaztek aski duzue etxean egoitea... Emazte kondu, beti goxokiago oldartuko baitzauzkitzue zueri !

MAYI . - Ni ez naiz segur gizon itsusi horien beha hemen egongo... Artoperat noa ilar biltzerat.

KATTALIN . - Zoazte biak... Atxikiko ditut ba nik gizon horiek !... Zer zauzte, mutur zuri horiek izitzen ? Datorzila. (*Bettiri eta Kattalin, etxe barnerat sartzen dira*)

MAYI . - (*Erramuni*) Ho !... Agian ez zauzte atzemanen !

ERRAMUN . - Ho ba ! Neke liteke.

MAYI . - Ontsa gordea zirea bederen ?

ERRAMUN . - Ba, ba ! Arras ontsa !

MAYI . - Bon... Agur... Ixtante artio !

ERRAMUN . - (*Eztiki*) Agian ba, Mayi !

MAYI . - (*Tokiaren gainean dago, ez jakin zer erran bezala, burua behera zangoz lurra torratzen duela*) ...Bon !... Ixtante artio !

ERRAMUN . - Ha !... Ixtante hura, nik desiratu bezala izanen ahal da !

MAYI . - (*Gogoetatua, ixtant bat egoiten da ixilik*) Adio !...

KATTALIN . - (*Agertzen da atean*) Neska zoroa !... Aita joana dun... Artopean gorde gogo balinbadun, mugi hadi hi ere... Hor hago adorazionean bezala...

Jes ! Ikusiko dun ba, gero ere, hire Erramun. (*Mayi, jauzi batez urruntzen da. Kattalin, aizkora harturik, egur pikatzen lotzen da... Erramuni mintzo*) Errak to !

Eliza aldareko potretak bezain prestu hago gero, heldu badira !

ERRAMUN . - Ez dut zuk erraitearen beharrik !

KATTALIN . - (*Ixtant baten buruan*) Ez hadila gero urtzintzaka lot, ahantzi-eta !

ERRAMUN . - Urtzintza eta gainerateko bideak hertsu atxikiko ditudala jakiten ahal duzu, hunarat hurbiltzen badira.

KATTALIN . - To... Naski hor dituk... Ez hadila mintza ere, gehiago... Ba, ba, hek dituk... Edmon muki hori ditek gidari... Mutil zitala ! Ez ziroiat jasan mutiko

hori, begiko zikina baino gehiago. (*Urratsak hurbiltzen dira. Hiru alemanak agertzen dira Edmonekin*)

POLIZA NAUSIA . - Durchusen Sie alles ! (*Bi poliziak etxean sartzen dira*)

EDMON . - (*Kattalini*) Ikusten duzun bezala, etxea inguratua dute... Badakigu Erramun hemen gordea dela... Errozu, bere onetan, segidan agert dadien... Bere onetan !...

KATTALIN . - (*Harroki mintzo*) Nungo pika buztanak argiturik habila, to, hemen, Erramunketan ?... Erramun Basabeltzean bizi duk gero ! Eta ez hemen !

EDMON . - Errazu, ez zaitela gero sobera gora mintza haueri !

KATTALIN . - Ez nauk ni hauieri mintzo !... Hiri mintzo nauk ni... Ala, ez nauka gehiago ezagutzen. Ttipia hintzelarik, zuen ostatuan zerbitzari bainintuan, zonbait aldiz ibili haut ene besoetan... Ezagutzen ahal haut aski, hiri aise mintzatzeko !... Ez hau to hire aitabxi zenak ikusten egungo konpainia huntan !

EDMON . - Ba... ni ere, manaturik nabila gero hauekin !

KATTALIN . - Lehengo beharri luze hek berak hirekin dituk ba, ofizio mota huni lotzeko.

EDMON . - (*Koleran*) Kasu emazu gero zer erraiten duzun. Ikus-azu norekin naizen !

KATTALIN . - Zuentzat beraz oro haizu dituk... Nonnahi, nornahi sartzea... Edozoin tenorez !

EDMON . - Ez duzu deuseren beldurrik, ez baduzu, ez gizonik, ez armarik gordetzen.

KATTALIN . - Badakik arras ontsa, hemen ez dela, ez armarik, ez gizonik.

EDMON . - Armarik ez dakit, bainan badakit gizon bat hemen gordetzen duzula.

KATTALIN . - (*Oihuz*) Gizona ?... Nun duk gizona hemen ?... Kuia burua hi !...

POLIZA . - Was ?

EDMON . - Ha !... Ez duzu eni mintzatu nahi !... Huni egin beharko duzu haatik ! (*Polizari mintzo da ahapetik*)

POLIZA . - (*Orroaz Kattalini*) Die Arme auf !

EDMON . - Besoak goiti altxatzeko. (*Kattalinekin obeditzen du*)

POLIZA . - Fragen Sic !

EDMON . - Ez du balio ukatzea... Badakigu Erramun hemen dela... Eta badakigu nun gordetzen duzuen !

KATTALIN . - Nahi nitek jakin nor duzuen holako argi emaile famatua ! (*Polizak errebesiaz zaflako emaiten dio*)

EDMON . - Nork argitu gaituen nahi duzu jakin ?... Nork ?... Erranen dautzut Erramunen aitak berak... Uste duzue behar bada ez dugula gizon funtsazkorik gure adixkidetan... Jakin-azu nehork uste ez dituzuenak ditugula argitzale herrian... Erramunen aitak berak erranik dakigu, Erramun hemen gordea dela... Eta badakizu nun ?... Ez dut batere zuk salatzea beharrik... Hor, belar meta azpi hortan du bere gordetegia.

KATTALIN . - Ez duk egia !

EDMON . - Orai, hautua emaiten dautzut... Edo, zuhaurek agertaraz zazu Erramun... Hobeki jaliko gira... Edo guhaurek altxaraziko dugu bere ohantzetik... Eta orduan, hanbat gaixto, ba harentzat eta ba zuretzat.

KATTALIN . - Ez duk Erramunik hemen... Eta, hemen bahu ere, ez nezakek sala. Ez nauk ni ustela.

POLIZA . - (*Agertzen diren bi poliza gizonei*) Nichts ?

BIEK . - Nichts.

POLIZA . - *(Ahapetik mintzo da Edmonekin... bi poliza gizonei)* Kommen !

EDMON . - Badoatzi belar metarat... Dolutuko zautzu ukaturik. *(Alemanak jalitzen dira)*

KATTALIN . - *(Besoak behehituz)* Zer ukatu diat nik ?... Asto ziria hi !...

EDMON . - Ez dakit zertako gogor egiten duzun hola !... Bere aitak salatu duenez geroz, zertako zu, aita baino aintzinago sartzen zaren !

KATTALIN . - Aitaren berri, nik ez zakiat... Nik dakidana duk, Erramunik ez dela hemen... Eta hi, ez hiza ahalge herritarreri hola jazartzeko ! Zer birika !

EDMON . - Badakit zer ari naizen.

KATTALIN . - Oroit hadi egun hauk izanen dituztela biharamunak !

EDMON . - Utz-atzu biharamunak etortzerat... Barneak hantuak hor zagozte angeles amerikanoek gerla hau irabaziko dutela... Ikusiko duzue nor den nausituko... Ondoko egunetan, humilki etorriko baitzarete ni agurtzerat.

KATTALIN . - Hi agurtzerat ? Hi ? Hi agurtzerat ? Gure etxean ez diagu usaiarik astoari bixkotxen eskaintzeko... Eta, ez ahal gaituk sekulan hortaratuko !

EDMON . - Ba, sartuko dituzu ba oraino zure espantua... *(Alemanak berriz heldu direla ikusirik, besoak altzarazten ditu... Apur bat ixilik... Poliza nausia mintzo Edmonekin... Nehor ez dute belarrean aurkitu)*

POLIZA . - *(Kattalini)* Raus !

EDMON . - Libro zare ! *(Koleran)* Ez da Erramun belar meta azpian... Hanbat gaixto Basabeltzentzat, gezurra erran baitauku... *(Denak urruntzen dira... Kattalin, ixtant bat, aizkorari lotzen da)*

KATTALIN . - Ufa !... Azkenean urrundu dira !... Ufa ! *(Izerdia xukatuz jartzen da eskaleretan)* Debru basak !... Ufa !... Aise emaiten dutela zaflakoa horiek !...

Hor hiza Erramun !... Entzun dituka horien larderiak. Edmon zirtzila !... Agertzen ahal haiz ba, Erramun... Joanak dituk handik harat. *(Erramun jausten zurubirik gabe, zintzilik eman-eta, jauzi batez)* Ha, Edmon... Bat balinbaduk garbitzekoa, gerla bururatu-eta, hori izanen duk !

ERRAMUN . - *(Kopeta ilun, kolera hotz batekin)* Edmon baino lehenago, garbitze bat izanen dut, etxean berean egiteko...

KATTALIN . - Hori errak !... Izigarri duk ba, haatik, aitak hola semea saltzea.

ERRAMUN . - Aitarik ez eni gehiago aipa... Aitarik ez da gehiago enetzat... Hura eta ni bi etsai gerlan ari. Huts egin naute... Nik ez dut hura huts eginen...

KATTALIN . - Eta xehetasunak ontsa emanik igorri dituela !... Belar meta azpian gordetzen hizala !

ERRAMUN . - Hemen erranez lekuko izanen zira... Ustela ! Mesfidatua nintzen... Gorde tokia hautatu daut, etsaiak segurretik enegangat gidatu beharrez ! Ha, Judas ! *(Errebolbera erakutsiz)* Etxera sartu ordu, hunekin hil gogor aurtikitzen dut...

MAYI . - *(Agertzen da)* Ha !... Hemen zaretea ?... Ho, beldurtua nindagon ez ote zinituzten ereman bederen ?... Zertan zabiltzan ?

KATTALIN . - Hunen bila ibilki !... Etxe guzia miatu dituen eta karatosa aldi bat eman... Halere osorik utzi bainaute !

MAYI . - Eta Basabeltzean, nola utzi ote dituzte ?...

ERRAMUN . - Han, gure aita beren adixkidetarik dute !... Ni nun nintzen gordea salatu diote... Ez badiote oraino jan eta edaterat eman, konduen gain !

KATTALIN . - Ikusi behar dut pentze mutur hortarik, ean zer alderdi hartu duten. (*Jalitzen da*)

ERRAMUN . - (*Jarri-eta trixte eta ilun dago... Apur bat ixilik dagotzi. Xutitzen da... Mayiri hurbiltzen zaio eta kartsuki*) Zuk bederen, zuk, ez nezazula utz... Maite zaitut Mayi... (*Lotzen zaio besarkatu nahi balu bezala... Mayik zaflako bat emaiten dio. Biak egoiten dira zozotuak bezala... Erramunek boneta bilduz*) Ha, bon, bon... Ontsa da... (*Finki*) Zure falta izanen da fin gaixto egiten badut... Ez estona kriminel bat bilakatzen banaiz... Zure falta izanen da !... (*Urruntzen da laster lasterra. Mayi jartzen da eskaleretan... Apur bat ixilik bera dago, begiak urrunean galduak... Hasperen handi bat egiten du*)

KATTALIN . - (*Sartzen da*) No !... Ototan sarturik, Basabeltzetik urrundu ditun... Nun da Erramun ?

MAYI . - Ez duzuia ikusi ?... Etxe alde hartu du ba !...

KOSE . - Ez zakinat zer egin behar duten horiek, aita semek... Aitari jazartzea itsusi dun, bainan aita ere izigarria egin din semea hola salatzea !... Bainan, hik, zer dun ?... Begiak gorri ditun... Zerbait badun hik !

MAYI . - Hemen gertatuek barnea arras nahasi dautate...

KATTALIN . - Hik, hik, serora egin behar dunala !... Ez zakinat Erramun ez ote den hire bokazioneari nausituko.

MAYI . - Mundu huntan, ama, izaiten ditugu denek gure gorabeherak... Edozoin eskualdetarat abiatzea da errexenik. Abiaduraren bururatzeak emaiten ditu lanak.

KATTALIN . - Ez zakinat zer erran gogo dunan !... Ez duna itzuli bat egin nahi Basabeltzerat ?... Zertan diren ikusteko !

MAYI . - Ni, orai Basabeltzerat ?... Ez...

KATTALIN . - Oas !... Norbaitek behar giniken ba agertu !

MAYI . - Gauden aitaren beha !... Ikusi-eta zertan diren, gero itzuli bat eginen diotet...

KATTALIN . - Ha ! Nola bururatu behar ote dute ixtorio hauek ?...

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Kanpaña etxetako barne bat, jateko, dendariko, salun gisa edo hola... balia ditakena... Mahaiaren gainean, eman ditazke arto buru zombait buketatzat.

*Zakurra erauntsiaka herioari entzuten da, apur batez... Ana, erdi nigarrez, jarririk dago...)*

ANA . - Ho !... Zakur hori !... Ez dela geldituko bere herio erauntsietarik. Noren herioa ote dabil airean !... Pleini ditut politikeroen emazteak !... Politikeroak ez du lorik, ez janik, ez segurik, ez deskantsurik... Ohore gose... gezurra aise...

Adixkidantzak merke, trahikeriak tole... Ha, politika gure etxean sartuz geroz, urrundu dira hemendik goxoa eta bakea !

GANIX . - (*Sartzen da, asaldua*) ...Ama !... Zer gertatzen da ?

ANA . - ...Halere abisatu hute !

GANIX . - Ba, Bettiri Zapparretakoa etorri zait abisatzerat gure etxea alemanez inguratua zela !... Zer egin dute ?

ANA . - Aita eraman ditek.

GANIX . - Aita eraman ?... Norat ?

ANA . - Berekin !... Preso !... Jin dituk lehenik Erramun galdeka... Etxe guzia miatu ditek... Erramun ez zian hemen... Aitak auzoan gordea zela salatu ziotek.

GANIX . - Aitak Erramun salatu ?...

ANA . - Ba... Auzorat joan dituk... Erramun ez ditek han harrapatu... Eta, gibeleratekoan, aita preso altxatu ditek, zernahiko mehatxutan, gezurra erran diotela Erramunetz.

GANIX . - Eta Erramun ?

ANA . - Ez zakiat !... Uste nian bere gordelekuan zela... Aitak harat gidatu ditik Alemanak... Bainan ez omen zuian han !

GANIX . - (*Harritua*) Gure aitak alemaneri erakutsi baitiote Erramunen gordelekua ?...

ANA . - (*Hipaka nigarrez*) Ho ba !... Ezin sinetsia duk, bainan egia... Ez zakiat nolaz hortaratu den... Ni, ez ninduan hemen, aitortu duelarik... Bainan, bere ahotik eta alemanen ahotik ere, arras ontsa konprenitu diat Erramun salatu duela...

GANIX . - (*Gogoetatua*) Bon... Auzoraino noa... Ikusi behar dut zer gertatu den hor, eta non den Erramun. (*Ateratzen da*)

ANA . - (*Bakarrik*) Ha !... Gizonen gaxtakeria. Jendeak, mundu huntan, multzoka ezarriak gira, mugaz inguraturik... Muga horiek tokiz saildatu beharrez, gizon eroak gerlari lotzen dira. Mugetako alimaleak nahastekatzen dira, beren mutur pazka biltzen dutela, edozein eskualdetan... Hek baino beherago jautsia da gizona, urrats batean den auzoa, mugaz bertzaldean delakotz, arrotz edo berdin etsaituak hartu behar baitu. Ez dira horiek Jainkoaren nahitik, bainan gizonen gaixtakeriarengatik. (*Zakurra herio erauntsiaka entzuten da*) Ho, zakur zikin hori ez dela ixilduko !... Muga horiek ken ditzatela behin betikotz !... Ez badituzte arras kendu nahi zer zauku guri izan daiten haratxago edo hunatxago ? Bakea, bakea eman dezagutela ! Bi egun ditugu lur huntan pasatzeko eta... Sobera galdatzen ote dugu ba ! Bi egunen bakea ? (*Erramun agertzen da*) Ha !... Hi bederen ez haute ereman, Erramun !

ERRAMUN . - (*Kolera hotz izigarri batekin*) Nun da, etxe huntan zurekin bizi den gizon hura ! He ? Nun da ? (*Errebolbera eskuan dauka*)

ANA . - Zer ?... Aitaz hiza hola mintzo ? (*Hipaka nigarrez*)

ERRAMUN . - Ez da gehiago aitarik enetzat !

ANA . - Aitarik ez gehiago ?

ERRAMUN . - Ez dut aitatzat estimatzen, ni hil nahiz ari den kriminel tzarra.

ANA . - Aita hik hil nahi ?... Zer dakik xuxenik ?

ERRAMUN . - Ez naiz airerat mintzo !... Badakit zer diotan.

ANA . - Aita, alemanek preso joana ditek.

ERRAMUN . - Preso ?... Edo beren zerbitzuko, jende salatari gisa ?

ANA . - Zer derasak ?

ERRAMUN . - Ba... Edmon bat zuten alemanek herrian !... Orai izanen dituzte Edmon bi... Bainan, ikusten duzu hau ? (*Errebolbera erakusten du*) Edmon bat edo bi, ahoz gora aurtikiko dut lehenik atzemanen dudana, demendreneko duarik gabe.

ANA . - (*Ikaratua*) Bahukea hire aitaren garbitzeko kopeta ?

ERRAMUN . - Erraiten dautzut : Aitarik ez da enetzat... Ni hil nahiz ari den otso basa, garbitzeko dretxoahahal dut ?

ANA . - (*Nigarrez*) Ho, seme !... Pena egiten dautak !... Hau bizi trixtea !... (*Apur bat ixilik egoiten dira, Ana beti nigarrez*)

GANIX . - (*Sartzen da Mayirekin*) Ha !... Hemen hintzen-eta !... Zapparrean ninduan hire ondolik !... Errazu, Mayi, otoi suaz okupa zaite !... Zer hartuko duzu Ama ? (*Mayi jalitzen da*)

ANA . - Pitsik... Pitsik...

GANIX . - Badakik aita preso dela ?

ERRAMUN . - Luzaz han dagola ! Handik ateratzen bada, ez baituk hobe izanen harentzat.

GANIX . - Zer duk, mutikoa, holako errabian aitarentzat ?

ERRAMUN . - Aitarik eni gehiago ez aipa !... Gure etxeko zakurra hainbertze estimatzen baitut

GANIX . - Hago ixilik !

ERRAMUN . - Baditiat ene arrazoinak hola mintzatzeko !

GANIX . - Ez bahitake bertzela mintza, mintza hadi bederen amatik urrun !

ERRAMUN . - Ez diat amarentzat arrangurarik.

GANIX . - Ez zakola beraz egin penarik, hola mintzatuz ! Zato, ama... Zato, ixtaño bat ohearen gainerat...

MAYI . - (*Agertuz*) Tillura xorta bat emaiten dut berotzen ?... Oherat ekarriren dautzut, Ana.

ANA . - Berdin zaut zernahi. (*Ganix eta Ana jalitzen dira. Erramun eta Mayi, biak dagotzi xtant bat ixilik, bakotxa berea gogoan... Erramun harat eta hunat-ka dabil... Mayik armariotik hartzen ditu tillura zerbitzatzeko puskak*)

ERRAMUN . - Mayi !...

MAYI . - Zer nahi zinuen ?

ERRAMUN . - Beraz, arras deliberatua zare harat sartzerat ?

MAYI . - Ba... Arras !

ERRAMUN . - Ha !... Uste nuen ene bizia zurekin egitea ! Nehor ez dut gehiago munduan, nori fida eta nor maita ! Uste nuen zutan aurkitzea desiratu laguna !

MAYI . - Bertze xederik dut !

ERRAMUN . - Mayi ! Sekulan xedez bertzelakatzen bazira, oroit zaite nitaz !

MAYI . - Agian ez !

GANIX . - (*Sartzen da*) Ixtant bat ohean pausatzeak on egingen dio... Aski diozu tillura han zerbitzatzeari... (*Mayi jalitzen da... Erramuni*) Zuen politika higuinarekin, ba aita eta ba hi, etxea eta herria errekaratzen ari zarete !

ERRAMUN . - Milesker, orai aitarekin banauk uztartzen, eta hola banauk jujatzen, ene biziaren irriskuz, lur hau libratu nahiz ari naizen denboran.

GANIX . - Lur hau libratzeko ari bahintz gerlan, hirekin nindukek. Bainan ez duka ikusten bertzeen mutil haizela gerlari ?... Hire odola irriskatzen duk, ez lur hau libratzeko, bainan hau bertze nagusi batzuen menea ezartzeko.

ERRAMUN . - Nausi eta nausi badituk... Ez ahal duk gaizki nausi gaixto bat kasatzea, hobeagoaz ordaintzeko !

GANIX . - Hik eta aitak hobe zinukete guri manatu nahi duten nausi guzieri, erraten baziniote : Ez dugu nehoren mutil nahi !... Gure gain bizi nahi dugu. Utz gaitzazue denek gure gisa !

ERRAMUN . - Amets ederra hori ! Uzten baginituzte ba gure gisa !

GANIX . - Guri duk mutil nahi gaituzten guzieri aski fermuki mintzatzea !

ERRAMUN . - Ez dik balio solas espanturik ibiltzea ! Gu bezalako jende ttipia, beti bertzen meneko izanen duk.

GANIX . - Mutil nahi den gizonak, beti nausiak aurkituko ditik.

ERRAMUN . - Zer uste duk ! Muga bat aski dela Euskal-Herriaren inguruan ezartzea, muga hura errespetatua izaiteko ?

GANIX . - Bazukek ez garen aski indartsu gure lur mugen zaintzeko... Bainan gure gogo eta bihotzen hedaduraz osoki jabe gaituk... Eta, gure baitako hedadura horiek beti salbatzen ahal ditiagu, guhaurek nahiz gerroz.

ERRAMUN . - Horiek guziak eder dituk predikutik, bainan ni bizi nauk gertatutik.

GANIX . - Gertatutik bizi bahaiz, zeri lotu gogo duk orai ? (*Zakurra, Ana jin artio, herioari erauntsiaka aritzen da*)

ERRAMUN . - Zeri lotu gogo... Bertzeak bertze, garbitasun bat badiat lehenik egiteko, etxe huntan berean !

GANIX . - Aitaz hiza mintzo ?...

ERRAMUN . - Hartaz beraz !

GANIX . - (*Fermuki*) Jakintzak holako zozokeriak ez badituk burutik uzten, ez bakarrik aita, bainan familia guzia izanen dukala etsai !...

ERRAMUN . - (*Orroaz*) Aitarik ez duk gehiago enetzat... Bainan, ni hil nahiz ari den kriminal bat !

GANIX . - Hori hola izanik ere... Hobe dik aitak hil semea izan, ezenetz seme aitaren hiltzailea.

ERRAMUN . - Zer uste duk ! Hortaraino ene biziari uko egin dudala ?

GANIX . - Bizi zikindua baino, baterez bizi hobe dik.

ANA . - (*Sartzen da*) Ho, haurrak !... Zuen oihuak ganberan ageri dituk... Ez niukek pausa... Zakur hori ere ez duk herio saingatik ixiltzen.

GANIX . - (*Eztiki*) Arrazoina duzu... Jar zaite, jar ama ! (*Anaiari*) Hire gogoetak egin-zkik... Bainan, lan tzarra egin baino lehenago, behazok sala huni... Hemengo puska guziak oroitzapen goxoez beteak dituk... Hemen bildu izan gaituk frangotan, familia guzia bakerik ederrenean... Hemendik norbait eskasten bada hire faltaz, puska horiek berek akusatuko haute ezin jasanezko oroitzapen zorrotz batez... Hola pozoinatu bizi bat eraman gogo balinbaduk, habil... Ixurtzak aitaren odola !...

ERRAMUN . - Zer haiz ?... Aitarekin "pareak bat" jartzen ?

GANIX . - Aita botatzen baduk, ama eta anaiketan ibiltzen ahal haiz, nahi dukan tokian !

ERRAMUN . - (*Motz motza*) Hik hola eta nik bertzela... (*Laster lasterra ateratzen da... Denak ixilik daude... Zakurrak zonbait herio sainga egiten ditu*)

ANA . - Ho, zakur hori berriz ere...

GANIX . - Ixilaraziko dut ba... Bertze nonbait estekatuko baitut. (*Jalitzen da*)

MAYI . - (*Sartzen da*) Ori, Ana, tillura xorta bat.



ANA . - Milesker... Milesker... Errazu, Mayi, ez da beharbada pollit nik lehen aipatzea... Badakit Erramunekin atxikitzen duzula... Behar zinueke eztiki bildu, bere xede tzarrak ez ditzan obra.

MAYI . - Egin ahalak eginen ditut hortakotz... Bainan, ez dut deus atxikimendurik Erramunekin.

ANA . - (*Estonatua*) Erramunekin ez duzula atxikimendurik ? Noiztik ez ?

MAYI . - Behin ere danik !

ANA . - Ha... Uste nuen... Berak zerbait aipatua zautan... Kontent nintzen... Zer nahi duzu !... Egun beraz, pena guziak betan enetako ziren !...

MAYI . - (*Duda-mudaka mintzo*) Ez zazula penarik har... Ez nuke Erramunekin ez ezkontzeko deus arrazoin berezirik... Bainan ezkontzaz goragoko biderik hartuko dut ?

ANA . - Zer bide ?

MAYI . - Serora egin gogo dut.

ANA . - Serora ?... Zu, Mayi, serora ?

GANIX . - (*Sartzen da*) Aldaratua dut zakurra lekutik... Hola ixilduko ahal da...

Jes, Ana, zer duzu begitarte harritu hori ?

MAYI . - Ba, berdin zaut zuri erranik ere... Haatik, amari baitiot oraino bakarrik errana, zombait egunez berria zuretako atxik-azu.

GANIX . - Zer berri ?

MAYI . - Komentuan sartzen naiz, Afrikarat serora joaiteko.

GANIX . - Zu serora ?... Hori... Ez nuen holakorik pentsatuko.

ANA . - Bainan zerk, zerk eman dautzu ideia hori ? (*Aleman soldado kantu bat entzuten da urrundik ? Denak ixilik daude, apur bat*)

GANIX . - (*Leihotik behatu-eta*) Zerk eman dautan serora joaiteko ideia ?...

Aleman kantu horiek !... Mundu huntan sobera gisa hortako kantu kausitzen dut... Herra eta urgulua dariotela... Ez dezaket gehiago jasan holako aire pozoindatuen erdian bizitzea... Goragoko aire eztia emanen ahal daut komentuak.

GANIX . - Agian bururatuko duzu zure ametsa !... Euskaldun haur bat gehiago Jainkoaren zerbitzuko, eder zaut... Aldaxka ttipia gare euskaldunak munduko arbola handian, bainan aldaxka aberatsa... Gure lur ttipiak emaiten dituen fruitu ederren galtzetik beiratzeko ez balitz ere, munduak behar luke Euskal-Herria bizitzen lagundu... Agian Mayi, zure biziak gure lurra ohoratuko duzu !...

OIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Basabeltzeko sukaldea, arratsarekin

ANA . - (*Bakarrik*) Hirugarren eguna, senarra han dudala ! Hura preso joanaren pena, zerbait bada enetzat, bainan pena hori latzago zaut, ikusten baitut familia nahasia, aita semeak elgarrentzat otso bilakatuak !... Familiako goxotasuna da

ama baten zorionetarik minena ! Gertakari hauk, ene zoriona, bere erroetan pozoinatzen dautet. Ene senarra han : Gizon basa horien aztaparretan... Martirio izigarrienak pairatzen omen dituzte, preso hartuer, dazkitenak aterarazi beharrez. Enea nola ote dabilkate ? Ez naiteke hola bizi... Su naukan odol zainetan !... Hortakotz, goiz huntan, furrari errana diot : Zoazi Edmonenganat, ene partez... Otoi, otoi, alemanak mintza ditzala... Ene senarra libraraz dezala... Gutaz urrikal dadiela ! Ez diot Erramuni hitz pitsik aipatu... Ero bailitake, ean orai, Edmon ustel horren aintzinean belauniko eman naizen... Senditzen dut : Hortaratzea, behera jaustea da... Enetzat ederrago liteke burua gora etsaiari mintzatzea... Bainan adimenduak buru goraz ardiestea nahi lukeena, bihotzari berdin zaio, herrestaz ardietsirik ere.

FATURRA . - (*Atea jöz*) Hela !...

ANA . - To, faturra ! Ha, azkenean !... (*Sartu ordu*) Eta ?... Zer berri ekartzen dautazu ? Ikusi duzu Edmon ?... Zer erran dautzu ?

FATURRA . - Berri on bat... Tirahala, oro utzirik, etorria naiz zure abisatzerat.

ANA . - O !... Jainkoari eskerrak !... Zer berri ?

FATURRA . - Iluntxe huntan berean, senarra hemen izanen duzu !... Libratu dute !...

ANA . - (*Nigarrez loriarekin*) Ha !... Hobe, hobe !... Eta ?... Ontsa dea ?...

FATURRA . - Ba, ba... Haatik, puska bat zanpaka ibilia dute... Bainan ontsa da... Aise kurritzen du. Bera plazan utzi-eta, lasterka etorri naiz berri onaren ekartzerat !

ERRAMUN . - (*Sartzen da behitegitik, kaiku esnea eskuan*) Zu ?... Tenore huntan, faturra ?...

FATURRA . - Ba !... Berri onarekin etorria... Aita libratu ditek.

ERRAMUN . - (*Kexu izigarrian*) Libratu ?... (*Amari behatzen dio. Hau ikaratua dago*) Nolaz libratu dute ?

FATURRA . - Gosta zaitak... Bainan, amak galdatua zautaian. Eta, izan nuk Edmonen aurkitzen... Eta, umilki hartu diat... Enea gogoan ba !... Bainan zer nahi duk !... Norbaiten beharretan denak, jakin behar dik hari agur egiten. Erran zioiat aita ez zela alemanen kontrakoa... Ez duela pitsik galduko... Esku arteko zerbaiten beharretan bada ere, Basabeltzean hartze izanen duela !... Eta, holako, to !... Ahal bezala bildu diat.

ERRAMUN . - (*Orroaz*) Zer ?... Basabeltzean, orai, Edmonen gibel milikari bilakatuak ? Noren baimenarekin duzu Basabeltzea hola apaldu ?

FATURRA . - Hire aita nolazpait libratu nahi nian !

ERRAMUN . - Ene aita izan gizon hura, ez dadiela ene bixtarat agert... Aditzen duzue ?... Ez dadiela agert... Nik eta ene lagunek, balak prest dauzkagu, ba hura eta ba Edmon, ikus orduko erroz gora aurtikitzeke.

FATURRA . - To !... Ez nian uste hortan zineztela !

ERRAMUN . - Semea saltzen duen aitak, bietan salduko ditu semearen lagunak ! Eta, alemanek hola libratzen badute, jakin-azu hitzeman arazi diotela, heien salatari beharko duela lanean ari... Eta, hitzeman, atxikaraziko diotela.

ANA . - O seme, utzak lehenik aita etortzerat ! Nik hura bilduko diat.

ERRAMUN . - (*Finki*) Ama !... Penaz dautzut erraiten... Bainan ez da hor bertze biderik... Harek ni, edo nik hura !... Jakinean izanen zarete. (*Ateratzen da*)

ANA . - Ho, izpiritu madarikatua, sartu dena gure familian !...

FATURRA . - Ez nakien hola nahasiak zinetela zuen artean. Lorietan etorria nintzen !...

ANA . - Horra zertaratzen duen gizona sortzez ukanen ukatzeak... Hola ez naiteke egon !... Nahi duzuia otoi bertze semearen etxean pasatu ? Errozu Ganixi, lehenbailehen etor dadien.

FATURRA . - Abisatuko dut plazarakoan... Banoa segidan.

ANA . - Ha... Otoi zoazi !...

FATURRA . - Agian ongi helduko zarete... Bihar artio !...

ANA . - Ba... Bihar artio !... (*Bakarrik*) Sortzez ukanak ditugu sorterri eder bat, bizi molde eta usaia sanoak... Bainan, gure gizonak, sortzez ukan horieri uko diote egin... Etxeko karrosa, auzoko zaldiari estekatu diote... Eta orai, hor dabilta nahasiak, karrosa, batzuek eskuin, bertzek ezker tiratzen baitute... Sortzez ukanak, Jainkoak emanak... Hek behar genituzke lehen-lehenik ohoratu... Heien ukatzeak gaitu errekaratzen !

MAYI . - (*Sartzen da, loriatua*) Agur, Ana !... Berri on batekin heldu naiz, plazatik... Kose ikusi dut... Libratua da... Han zagon solasean, plazan, bertze zonbait gizonekin.

ANA . - (*Trixteki*) Milesker, Mayi... Faturra oraintxet ateraia da hemendik, berri bera ekarririk !

MAYI . - Zer duzu ?... Ez duzu iduri hain kontent zirela ?...

ANA . - Mayi !... Zerbitzu bat behar dautazu egin !... Zuk bakarrik egin dezakezuna da !...

MAYI . - Zer zerbitzu ?...

ANA . - (*Barne barnetik mintzo*) Erramun behar zinuke bildu aitarekin elgar aditzerat... Erramun hor da, behi lanetan ari... Aita ikusten badu, hilen duela, dio... Ez da gehiago etxe huntan gauza onik.

MAYI . - (*Gogoetatua*) Erramun nik bildu behar ? Lan handitan ematen nauzu !

ANA . - Iduritzen zaut, gureentzat ez bezalako ongi etorri bat, baduela beti Erramunek zure solasentzat !... Nik, egin ahalak egin ditut haren biltzeko, bainan debaldetan... Ez dautazu zerbitzu hori errefusatuko... Hautatu duzun biziak, galdatzen ere dautzu jendeen baketzale izaitea !

MAYI . - Bixtan da !... Ene geroak, zuri ba erraitea manatzen daut... Bainan, badakizu !... Ene barnean doidoia hesten ari diren zauri batzuen, berriz idekitzea, galdatzen dautazu !...

ANA . - Otoi ! Otoi ! Ez dezadazu zerbitzu hori errefusa ! Ha ! Senditzen dut Erramun heldu dela... Gaineko ganbararat noa... Uzten zautzet biak.

ERRAMUN . - (*Sartzen da*) Zu hemen, Mayi ?...

MAYI . - Ba... Doidoia berri on batekin etorria... Aita libratu dute... Plazan ikusi dut.

ERRAMUN . - Hori, berri on bat deitzen duzu, zuk ? Jakin-azu, sakela huntan daukadala errebolbera prest... Eta, orai, zure orde, aita agertu izan balaut, hor izanen zela lurrean, bi balez aurtikia.

MAYI . - Ho ! Erramun, izitzen nauzu !

ERRAMUN . - Ez da hek eta hauk... Holako gizona lanjer izigarri bat da, herri huntako hainitz semeentzat... Baitaki gure berri... Eta, aski barne tzarra bailuke, denen saltzeko... Frogak hor dira... Eta ba ni, ba ene lagunak, hitzartuak gare, lehen padaran aurtikitzeko, ba aita eta ba Edmon.

MAYI . - Ho, Erramun !... Ez zazula krimarik egin !...

ERRAMUN . - (*Orroaz*) Krima ! Krima ?... Oraiko tenorean, holako gizon zikin batzuen garbitzea, zerbitzu handi baten egitea da herri guziari. Ez baitakigu nun geldituko duten hasi saila !...

MAYI . - (*Nigarrez eta emeki*) Ho Erramun !... Badakizu zonbat estimatzen zaitudan... Iduritzen zaut holako egitate batek, ilun bat ekar dezakela zutaz dudan estimuari eta zuhauri ere !... Enezat bederen, enegatik, maitatu bainazu, urrundu aintzineko azken oroitzapen goxo bat galdatzen dautzut : Zure xedeari uko egin-azu... Bake zaite aitarekin.

ERRAMUN . - (*Erramun*) O Mayi !... Uko egin-azu komentuari !... Eta nahi dituzun guziak ukanen dituzu eneganik.

MAYI . - Ez dezaket !

ERRAMUN . - Goazen ihesi, toki basa huntarik urrun !... Espainarat, Ameriketarat, norapait ! (*Hurbiltzen zaio*)

MAYI . - Ho, Erramun... Zaude urrun niganik ! Holakorik ez dezaket.

ERRAMUN . - (*Minberaki*) Zuk ezin uko egin badezakezu zure xedeari, nik ere ez eneari ! (*Briu-brau, jaltzeko arropez beztitzten da*) Nik zu behar bazaitut konprenitu, zuk ere ni konpreni nezazu... Goazen bakotxa gure bidetik, eta bakea eman dezagun elgarri !... Banoa, zuen etxe ondo hartarat, sasipean dudan oherat... (*Hotz-hozki*) Gau on ! (*Ateratzen da*)

MAYI . - (*Bakarrik*) Hau tratua !... Krima bat gerta ez dadien, behar ote dut ba ene serora xedeari uko egin !... Ezkont zaite enekin, bertzenaz aita hiltzen dut !... Ez da ezkontzen norbaitekin haren gaizkitik begiratzeko, bainan, hura maitez eta harekin biez bat egiteko !... Ni, bide xuxenetik nabil... Ibil bedi hori ere beretik !

ANA . - (*Agertuz*) Senditu dut Erramun ateratzen !... Eta ?... Bildu ahal duzu ?

MAYI . - Egin ahalak eginik, ez dut deus bururatu !

ANA . - Zer dio ?

MAYI . - Ni harekin ezkontzekotan, aita bizirik utziko duela...

ANA . - Ho... Horixe egin bazineza !... Sakrifizio handia zuretzat... Salbamena guretzat !...

MAYI . - Ez ahal zinuke nahi !... Ez da sakrifizioz ezkontzen !...

ANA . - Bederen, Mayi, galerna hau pasatu artaino, ez zinukea Erramun abusatzen ahal, ezkontza erdi hitz emanez, gero bere gisa utziko baduzu ere ?...

MAYI . - Ez naiz aski bertutetsu hola suarekin abusatzeko, ez eta aski faltsu komedia horri lotzeko !

ANA . - Arrazoina duzu... Barka zadazu... Amazko bihotzak emaztekitasuna ahuldu daut...

MAYI . - Ez dezadan urrikirik izan azken piruraino entseatu eskasean makur bat gertatu dela... azken urrats bat eginen dut... Erramunenganat noa... Ahal badut, gure etxerat haren biltzeko... Han, abusatuko eta arinduko ahal dugu !

ANA . - Ho ba !... Zerbait egin-azue !

MAYI . - Agur beraz, Ana !

ANA . - Ba, agur !... Milesker Mayi !... (*Bakarrik*) Munduari dei egiten diot, izigarrikeria batetik ene familia begira dezan !... Mundutik esperantza guti bildu dut... Zeruak bederen lagun nezala... Lau presuna badira gure familian... Lau tortxa piztu behar diozkat Ama Birjinari... Horien sua bizi den bezala, bizirik izan

gaiten gu lauak ere. (*Lau tortxa emaiten ditu ximinia gaineko Ama Birjinari, bainan ez du heien pizteko astirik*) ...Ha !... Nor da hor ?... Zu zirea ?...  
 KOSE . - (*Sartzen da... Motzki mintzo*) Ba... Ni naiz... Bakarrik zare ?  
 ANA . - Ba, bakarrik ! (*Zozotua bezala da*) Zu ?... Zu hemen ?... Nola utzi zauzte ?... Kolpatua zare ?...  
 KOSE . - Piska bat joka ibili naute... Ez dut gerokorik... Erramun hemen da ?... (*Anak ez du erreputarik emaiten, bainan hipaka nigarrez lotzen da. Kosek nigarrez deskantsatzerat uzten du, erranez artetan*) Zer duzu nigarrez ?...  
 Bainan, zer duzu ?...  
 ANA . - Pitsik, pitsik !... Erramunen berri galdatzen duzu ? Erramun zu hiltzerat deliberatua da, saldu duzulakotz !  
 KOSE . - (*Oldartua*) Nik Erramun saldu ?... Saltzeko banu, aspaldi saldua izanen nuen... Enganatu izan naiz !... Saldu !... Ez dut saldu !... Enganatu naute !... (*Apalago*) Nihaurek ez baitakit nola.  
 ANA . - Errabia izigarrian dago, eta, armaturik, zu aurtikitzeko prest !...  
 KOSE . - Ori, gero ikusiko... Erranen diozkat xuxen xehetasunak, nun zer gertatu den... Eta konprenitu nahi badu, konprenituko du... Nun da ?  
 ANA . - Jalia da !... Zaparretarat biltzekoa zuen Mayik !  
 KOSE . - Segidan haren aurkitzerat noa... Gertakariak nahi ditut harekin, lehenbailehen buruz buru xuritu !...  
 ANA . - Ho ! Beldur naiz !...  
 KOSE . - Zertaz zare beldur ?  
 ANA . - Tiroz botako zaituela !  
 KOSE . - Tiroz botako ?... Ez ahal naiz zakur bat. Zaude deskantsuan... Ixtant artio... (*Ateratzen da*)  
 ANA . - Ho !... Ez zaitela joan !... Beldur naiz !... (*Bakarrik*) Zeruko Ama, lagun gaitzazu ! (*Tortxak pizten dituela*) Ez dautzut familiako bakea ere galdatzen...  
 Bainan bizia... Bizirik jali gaiten nahaskeria hautarik !... Lauak... Lau tortxa hauek bizi diren bezala bizia izan dezagun... Hortaratuak gare, Zeruko Ama... Hil hurranean, ez eritasunaz, bainan krimaz... Zure bakeak ingura gaitzala !...  
 Ha, gizonen erokeria !... Elgar maita-azue !... Hola mintzo da Jainkoa... Bainan, haren erranetik baino, beren kaprizatik bizi nahiago dute gizonek !... Gizon eroak !...  
 GANIX . - (*Sartzen da*) Aita libratua omen da, ama !  
 ANA . - Ba, hala duk ! Etxean doidoia sarturik, Zaparretarat joana duk  
 GANIX . - Zaparretarat tenore huntan ?... Zertarat ?  
 ANA . - Erramunen aurkitzerat !... Ez duela gero saldu, nahi zioian esplikatu.  
 GANIX . - (*Bizi-bizia*) Bainan, ama, sekulan ez zinuen utzi behar Erramunenganat joaiterat !... Badakizu zer errabian den Erramun !  
 ANA . - Zer nahi huen egin nezan ?  
 GANIX . - Bederen, gure etxerat igorri bazinu !... Edo, ene beha, hemen egon arazi !  
 ANA . - Ez diat ahoa idekitzeko astirik izan !... Joan duk !  
 GANIX . - (*Harat eta hunat ibiliz*) Ho, ho, ho !...  
 ANA . - Otoitzean ari ninduan, lau tortxa pizturik Ama Birjinari lauak bizirik jali gaiten !...  
 GANIX . - (*Hortzen artetik*) Otoitza, ontsa da... Bainan, bazen beharragorik.

ANA . - (*Bizi-bizia*) Hik egin-zak zerbait hire aldetik !... Nik lurra eta zerua deitu ditiat gu laguntzerat !... Ez zakiat gehiago zeri lot !... Nik bil ahala, etsaia barreatzen ari baitzaut !

GANIX . - Ba... Betiko legea da hori... Hobe dut naski Zapparretarat joan nik ere.

MAYI . - (*Atea presaki jo eta presaki sartzen da... Arrunt asaldaturia da*) Gau on... Ha, hemen zare Ganix ?... Ha, bon !...

ANA . - (*Asaldaturia*) Zer duzu ?... Zer duzu ?...

MAYI . - (*Anari*) Pitsik, pitsik !... Lasterka etorria naiz !... Hats hantua ! (*Anak ez duela ikusten, keinu egiten dio Ganixi, jali dadien kanporat*)

ANA . - Erramun bildu zinuen etxerat ?...

MAYI . - Ba... Bildu nuen !... Uf... Uf... Zer izerdia heldu zautana !...

ANA . - Jar zaite, jar... Zaude, oihal bat ekartzen dautzut xukatzeke. Ha, armarioan ditut. (*Ateratzen da*)

GANIX . - Errazu, zer da ? Zer gertatzen da ?...

MAYI . - Erramunek aita aurtiki du bi tiroz.

GANIX . - Nun ?...

MAYI . - Gure atean !... Laster zoazi, otoi !... Erramun gure etxean zen !... Aita harat jin da !... Eta, ikus orduko, atean aurtiki du...

GANIX . - Ho, ho, ho !...

ANA . - (*Sartzen da*) Ori !... Xuka zaite !

GANIX . - Bon... Orai ez baitzare bakarrik izanen, uzten zaitut, ama !... Zapparretarat noa !

ANA . - Habil !... Habil !... Agian, denak xuxenduko dituk ! (*Ganix ateratzen da... Mayiri*) Aise bildu zinuen Erramun ?...

MAYI . - Ba, frango aise !

ANA . - Eta, senarra ez duzu ikusi bidean ?... Zuen etxerat joana da !...

MAYI . - Ba, ba... Ikusi ditut !... Phu !... Phu !... (*Izerdia xukatzen du*)

ANA . - (*Asaldaturia*) Eta, nola elgar hartu dute ?

MAYI . - Phu !... Phu !...

ANA . - (*Izigarri asaldaturia*) Ez duzu errepustarik emaiten ?... Zer da ?... Zerbait gertatu ?... Mintza zaite ba !... Mintza zaite !

ERRAMUN . - (*Sartzen da, begia zorrotz, arpegia izigarri ilun*) Gau on !... (*Mayi xutitzen da, ikaratua eta, ixilik, eskuak bizkar gibelean, tente dago, murruren kontra*)

ANA . - Ha... Hor haiz Erramun !... Eta ?... Zer egin duk ?... Zer gertatu da ?... Aita ikusi duk ?...

ERRAMUN . - (*Apal eta ilun mintzo*) Ama... Ez nauzu zerbait denboraz ikusiko ! Ene soldado lanetan izanen naiz !...

ANA . - Hik, zerbait behar ez den egin duk ?... Zer egin diok ?... Aitari tiro eman bederen ?...

ERRAMUN . - Zuri adio bat egin gabe, ez nuen urrundu nahi !...

ANA . - (*Behatzen diotela bati eta bertzeari*) Zuek, zerbait gordetzen dautazue !... Zuk ere zerbait badakizu, Mayi !... Zer dira bederen ! Lau argi bederen hiru bilakatu ?... (*Nigarrez*) Bainan, errazu ba zerbait ?... (*Erramun hurbiltzen da argietarat, bat hiltzen du eta burua apaltzen, lurrari behatzen duela. Ana erortzen da, marrumaz, kadera baten gainerat*) Triste malurusa !

ERRAMUN . - (*Behako bat ematen dio amari... Bertze bat Mayiri... Hunek ez dio behatzen ere... Iduri harrizkoa, geldi geldirik dago*) Gau on ! (*Ateratzen da*)

MAYI . - (*Hurbiltzen zaio Anari*) Ba... Erramun gure etxean zen... Norbaitek atea jo du... Izan naiz idekitzen... Eta, entzun duelarik aitaren boza, Erramun jin da aterat eta bi tiro eman diozka... Aurtiki du... Orduan, lasterka etorri naiz hunarat !...

ANA . - (*Nigarrez*) Ho... Ene familiaren zortea !... Politika zikina !... Denak, arrotz batzuen zerbitzatzeko !... (*Ixtant bat hola egoiten dira, nigarrez... Bortatik entzuten dira gizon solas batzu*)

GIZONAK . - Zangoz aintzin !... Pausa dezagun ixtant bat ! Burua emok gorago !... Kasu !...

GANIX . - (*Sartzen da... Behako bat eman-eta*) Badazkizu denak, dudarik gabe ?... Gorputza hor da !... (*Ana, azkarkiago nigarrez, ixtant bat utzirik*) Mayi, otoi lagundu beharko gaituzu ganberaren preparatzen !... (*Mayi eta Ana jalitzen dira. Bakarrik eta finki*) Horra zertaratu garen gure etxean !... Basabeltzean gertatuak, nehoiz ez daitzila berriz gerta !... Hortako dautzuet kondatu ene familiaren ixtorio trixte hau !

OIHALA